



Goibek kale

Elgetako aldizkaria iraila 38zk.

Goibek

F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Udazkenean txotx!

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Eginekun elkartasuna

Honako agiri hau sinatzen dugunok, ondorengo arrazoiengatik Egin egunkaria eta Egin irratia gure elkartasuna adierazi nahi diegu:

1. Administrazio kontseilu bateko kide batzuri leporatutako balizko delituengatik hedabide bat istea ez dela bidezkoa irizten dugu, pertsona fisiko batzuen ustezko jardunak eta hedabidearen funtzionamendua bereiztu behar baitira.

2. Adierazpen askatasuna giza eskubide bat izanik, hedabide hau isteko erabakiak giza eskubide hori ez errespetatzea dakar, hainbat eta hainbat pertsonari informazioa jasotzeko bide bat itxi zaiolako.

3. Horrelako neurri larriek gatazka eta tentsio giroa areagotu besterik ez dute egiten eta.

Sinatzaileak:

GEU GASTEIZ aldizkaria

GALTZAUNDI K.E.

GOIBEKOKALE aldizkaria

TXINTXARRI aldizkaria

TTIPI-TTAPA aldizkari eta telebistako langileak

Betiko leloa (ulertzeko eran)

Aurreko alean idatzitako zutabetik ondorio bi atera ditut. Bata, positiboa, Goibekokaleko zenbait atal behintzat irakurtzen diren ziurtapena, zalantzak baintuen. Bestea, eta ez hain positiboa, idatzitakoa ez duela inork ulertu edo ia inork. Kazeteria izan nahi duen baten zatitza nahiko gogorra da azken ondorio hau.

Pertsonalitate faltari buruz ari nintzen. Lerro gutxi batzutan elgetar

DEIADAR aldizkaria
IRUTXULO aldizkaria
MAXIXATZEN aldizkaria
ERAZ aldizkaria
GOIERRITARRA aldi zkaria
BERTON aldizkaria
BIZARRA LEPOAN aldizkaria
BERRIGARA aldizkariko langileak
DROGETENITTURRI aldizkaria
ETA KITTO! Aldizkaria
BARREN aldizkariko langileak
NOAUA! aldizkaria
AIURRI aldizkariko langileak
GUAIXE aldizkariko langileak
DEIADAR aldizkaria

Zorionak Gaztetxeari

Udazkeneko jaiaren antolakuntzagatik zorionak. Oso ondo egon zen arratsalde osoa eta partehartze handia ikusi da gazteen aldetik.

Ana Sousa

Eskerrikasko danoi

Elgetako Gazte Asanbladak, eskerrikak eman nahi dizkizue elgetarroi

Udazken Jaia aurrera eramaten laguntzeagatik.

Esker berezia herriko taberna-ri, Errasti harategiari, mahaiak utzi zizkigutenei, Udaletxeari, tortila lehaketan parte hartu zutenei, Ermuako Txindurri txistu eta dantza taldekoei eta plazara hurbildutako guztioi. Eskerrak berriro eta zorionak, aurrean ere, bakoitzaren arazo, ideia eta adin ezberdina izan arren plazan batu baizara. Honekin, Gazte Asanbladaren helburuetariko bat bete da. Eskerrikasko horretan laguntzeagatik.

Hurrengo hilabeteetan egingo ditugun ekintzetan parte hartzeraz ere gonbidatuta zaudete.

Elgetako Gazte Asanblada



gazte baten bizitza laburbiltzen saiatu nintzen. Konplikazio handirik gabeko bizitza. Orain arte behintzat kexatzeko arrazoi handirik izan ez duen pertsona batena. Baina denok ditugun kexa txiki horien artean, batzuek somatutako pertsonalitate falta isladatzea besterik ez nuen nahi izan.

Bide batez, lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke elgetarroi eskakizun bat egiteko. Azken hilabete hauetan ohartarazi naiz herrian badagoela gauza ugari esateko dituen jendea eta nik animatu nahiko nituzke guztion

onurarako izango litzatekeelakoan, zeresan horiek papel gainean isladatzen. Dena den, arazoa jendeak idazterako orduan sentitu ditzazkeen erraztasun falta edota adierazpenerako zailtasunak izango balira, neroni prest egongo nintzateke, gaur bertan, Goibekokale aldizkaria bertan behera utzi eta Goibekokale irratia sortzeko. Neure buruari planteamendu hau egin bezain pronto galdera hau datorkit burura: irratia sortzeaz bat ez al da idazteko gogoia loretuko pertsona horiengan?

Haritz Gallastegi

AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salvador, 32. Tel eta Faxe: 76 82 6



Bakea

Erabat ahoan darabilkigun hitza. Penagarria da ez daukagun zer edo zer eskatzea, batik bat bizitzeko behar duguna bezela hartzen badugu.

Hori gertatzen zaigu, pakearen esanahiarekin. Non dago kokka? Lehenengo egin beharko genukeena, gatazka zertan datzan eta gatazka sortzen dutenen zergatia eza-gutzea izango da.

Gatazkak, kasurik gehienetan, batzuen ustez, eskubide sozial, politiko edo kulturalak behar bezela errespetatzen ez direnak, edota alor horietan behar den neurrian lortu ez diren eskabideak eskuratu nahi dituztelako sortzen dira. Gatazka-ekintzen helburua, ustez zuzenkontrakoa den egoera aldatzea da, edo zuzenbide eta solidaritate maila handiagoak lortzea.

Gatazka-borrokak berekin dituen gogorkeriak, edozein izanik hauen izaera, arrazoizkoak dira -berorien egileen ustez- lortu nahi omen den <zuzenbide gehiago> horren izenean. Gogoan izan behar duguna, gatazka sortzen dutenek jendaurrean zuzenbidezko jatzera hau azaltzen saiatuko direla, objektiboa izan ala ez, jendearen aurrean nahi dutena iristeko.

Horregatik, askotan zail gerta daiteke gatazkaren <egia> jakitea. Egia hori jakiteak, ordea, helburu printzipal izan behar du gure hezieren, liskarretan sartuta bizi direnen interesen arabera manipulatuak ez izateko.

Gatazkaren egiari dagokiona bi aldetatik azter daiteke. Egia objektiboaren eta norberari subjektiboki iruditzen zaionaren ikuspegitik: Bata gatazka zer denaren, bere izaeraren eta zergatien egia da; eta bestea bakoitzak bere ikuspegiteik eta bere interes edo helburuen arabera egiten duen egoeraren irakurketa eta ulerkera.

Hau gai guztiau behar bezela aztertuta, Donostiako Gotzainaren Ikasturtearen haseran, GIZARTE ANITZA, TENTSIODUNA ETA GATAZKATSUAN BIZITZEKO HEZI idazki hori lortu nahi baduzue Aperribai Jose Luis jaunari eskatu. Hurren arte!!!!

Joakin Gastezi



Ba al dakigu entzuten?

Batzuetan, jendez inguratuta egon arren, horrek ez du esan nahi konfidantzazko


pertsonak dituzunik inguruan. Askotan, pentsatu egin beharko genuke, ea zergatik sentitzen garen bakarrik jendez inguratuta egon arren, edo gaizki gaudenean zergatik egiten dugun negar bakardadean.

Badirudi, poztasuna adieraztea onartua dagoela. Baina haserre edo tristura azaldu behar dugunean... "lasai-lasai" esan eta nahikoa dela uste dugu. Momentu horretan, agian ez dugu "lasai-lasai" bat entzuterik nahi, baizik eta beste pertsonak gure barrenean zer gertatzen den entzun eta uler dezan gura dugu; naiz eta arrazoirik ez izan, momentu horretan hori sentitzen dugu eta hori adierazi nahi dugu. Bestetan, esandakoari garrantzia kentzeko, geure esperientzia azaltzen diogu, eta ziur besteari momentu horretan ez zaiola hori gehiegi inporta. Momentu horretan bere arazoa entzungo duen baten bila dabil, ez du nahi epaitzerik, ez aholkurik.

Egin al dugu inoiz, bikotean adibidez, lehenengo batek hitz egin (10-15 minutu) eta besteak beste horrenbeste elkarri moztu gabe? Ez bakarrik bikotean, baita kuadrilan ere. Azaltzen al ditugu inoiz arazoak edo poztasunak beste inork moztu gabe? Lehenengotan, egia esan, zaila da. Hasieran oso azaleko gauzak esaten dira, baina poliki-poliki, benetako pertsona ezagutzen joan zeinke bere gauza positibo guztiakin ta ez hain positiboekin. Baina, noski, hau dena ezin da tabernetan egin, eta gaur egun... tabernez gain, oso gauza gutxi daude.

Pentsa dezagun.

Sonia Suarez



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldzikaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOJBEEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690.
Zuzendaria: Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar.
Maketazioa: Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza.
Publizistak: Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati).
Copyright-a: EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.
E-mail: goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldzikariari adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Pello Alberdiren erakusketa urriaren seira arte

Pello Alberdi elgetarraren hogeita hamalau margo daude Eibarreko Portalea aretoan erakusgai. Astelehentik barikura 19:00ak eta 21:00ak bitarte, eta zapatuan 12:00etatik 14:00etara. Erakusketaren azken eguna urriaren seian izango da.

Hurrindik begiratura inpresionismoaren printzak baditu ere, kritikoen lana da etiketak jartzea, eta Pellok ez ditu bere artelanak sailkatu nahi. Bere margoak, ez dira, bada, sailkatzeko errazak. Margolanak izenburuarekin ikustera ohituta daudenentzako, esan, orain erakusten ari den batek ere ez duela izenbururik, eta bateronbatak badu ere, ez duela jendeak ikusteko moduan jarri. "Egunen batean, agian, animatuko nahiz izenburuak jartzera, baina titu-

luekin jendeari esan egiten zaio zer ikusi behar duen" eta hori ez du oso atsegin Pellok. "Literatura alde batera utzi nahi izan dut. Tituluak subrealistak dira", eta horregatik ez ditu azkenaldian erabiltzen inoiz erabili izan baditu ere.

Estilo aldaketa


Lehen paperarekin egiten zuen lana; papera egin eta gero landu. Oraingo lanetan berriz, estilo aldaketa nabari da, norabidea finkatzeko gogoia balu bezala. Bila dabil, zer egin nahi duen bila. "Gauza batzuek ez naute betetzen eta horiek ezabatzen ditut definitzen noan heinean". Orain, beraz, definituagoa da bere lana, nahiz eta ikusi egin behar aurrerantzean norantza finkatuago bat edo aldaketa sendo bat izango den aurrerabidea.

Azala baino harantzago begiratu behar da azkenaldian egiten ari den lanean, "beste kanpo batzuk aurkitu behar dira". Ez da dena abstraktoa, oraingo lanetan "erotismoa presente dago, nolabaiteko garapena dago". Irudi, forma eta figuratan nabari daiteke garapen hori.

Txiki, handi, bizi, zurbil...

Txikienetik handienara eta kolore bizenetik kolore zurbilagoetara. "Tamainu handiko lanetan, ikusi nahi dena ugaritzen eta handitzen da. Lan egiteko beste era bat da". Badira lan batzuk tamaina txikiagoak ere "hauek konpaktoagoak dira eta ez dizute ospa egiten uzten". Koloreetan ere denetik, "batzuetan kolore asko erabili ditut, baina badira kolorea kontrolatu eta mugatu dituen lanak ere. Askotan kolore asko erabiltzeak galtzeko arriskua du.


Lanak abstrakto



Pello Alberdi erakusten ari den lanetako biren ondoan

samarrak badira ere, Pellok puntuekin egiten du lan eta gura duena formak ateratzea da. Askotan ordea, telebistaren morroi garenok, erraz ulertzen dugu apañailu horretatik ematen diguten guztia, "telebista, hamar urtean behin kuadroak ikustetik distantzia handira dago".

Aretoak sarriago ikusteko gonbitea egina dago. Portalean, herriko batek ditu bere lanak erakusten, eta nahi izanez gero erosteko aukera ere badago.



Argazkikoen estilo berean egindako 34 lan ditu Pellok Eibarren, Portalean.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
Tel: 76 80 98.
ALDI

Andoni Bolinaga
METALAK
FS7 18
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Eusko-Nafar mendi federazioaren fundazioko 75 urteurrena prestatzen


Herriaren partaidetza beharrezkoa izango da hau egunoi aurrera eramateko

1.999ko maiatzaren 23a da, Elgetan sortutako Eusko-Nafar mendi Federazioaren 75. urteurrena ospatzeko ekitaldiak burutuko diren eguna.

Egun hori antolatze-ko, batzorde arduraduna osatzen hasi dira Udaletxeko arduradunak. Lehenengo bilerara deia egin zitzaizen herriko elkarte, talde eta norbanakoei. Laster, egun hau antolatzeko ardura duen batzordeak, bileretara joateko gonbitea zabalduko du.

Urteurren hau aurrera eramateko beharrezkoa izango da elgetarron laguntza, izan ere, egun horretan etorriko den jendetza handia izatea espero da.

Batzordea, Bergara, Eibar, Elorrio eta Arrasateko mendi aldeekin harremanetan jarri da



programa bateratu bat ateratzeko. Ondoren, programa hau Euskadiko Federazioak daukanarekin bateratzeko asmoa dago.

Egingo diren ekitaldiak oraindik zehazteko dauden arren, mendi irteerak, erakusketak, diapositiba emanaldiak, bazkaria frontoian, Tapia eta Leturia, erromeriak, bertsolariak, dantzariak, etab. izango dira mendiarekin lotura duten hainbat gairekin batera.

Ikastaro ugari antolatu ditu Kultur Sailak

Udaletxeko Kultura Sailak antolatu dituen ikastaroak urrian hasiko dira. Ikastaroetan izena emateko epea irailaren 30ean bukatzen bazen ere, oraindik aukera dago.

Antolatu diren ikastaroak buzingintzakoa, esku lanetakoa eta marrazki eta margo etakoa dira. Marrazki eta margo ikastaroa haur eta helduei zuzenduta dago eta izena Udaletxean eman behar da. Ikastaroaren kostoa hileko 2.500 pta. izango da.

Buztingintza eta esku lan ikastaroak, bestalde, heldu eta jubilatuentzako antolatu dira.

Buztingintzan bi maila egongo dira. Oraindik zehazteko gauza batzu falta diren arren euskara ikastaroa eta argazkilaritza ikastaroa aurrera eramateko asmoa dute kultura sailean. Honekin batera taldea osatuz gero oleo ikastaro bat aurrera eramateko asmoa dute. Ikastaro hau seguraski Pello Alberdi margolariak emango luke eta hiru ilabeteko iraupena izango luke. Ikastaro hauetara buruzko informazio gehiago nahi izanez gero Udaletxean galdetu.

Urriaren 5ean Gimnasia saioen hasiera

3. adinekoentzako gimnasia eta mantentze gimnasiari urriak 5ean emango zaio hasiera. 3. adinekoak arratsaldeko 17:30etatik 18:15etara arituko dira. Arratsaldeko 19:15etatik 20:00etara edo 20:00etatik 20:45etara mantentzeko gimnasia izena emandakoen ordua izango da.

Bi ikastaro hauek astelehen eta eguaztenetan izango dira. Izen ematea polikiroldegian izango da.

Gizarte zerbitzuen gida berria

Osasun eta Gizarte Ongizate batzordeak Gizarte zerbitzuei buruzko gida berria kaleratu du laster. 400 gida inguru daude eta laster bidaliko dira gure etxeetara. Gida honetan departamentu honetan eskeitzen diren zerbitzu, aktuzio eta tramitazioen berri ematen da.

Gidarekin batera osasun zentruko eta larrietako telefono zenbakiak dituen pegatinak banatu dira.

Elgetako osasun zentruko telefono zenbakia 943 78 90 27 da eta larrietako zenbakia 843 46 11 11 izango da.

Etxebizitza berriak eraikitzen hasiko dira urrian

Udaletxeak jakitera eman digunez urrian edo azaroan ekingo diote Domingo Iturben eta Salvador bukarako tartean egingo diren etxebizitzak egiteari. Salvador bukarako tartean etxeak egiteko haseran zuen ideia aldatu behar izan du Udaletxeak, lur zati horretan ezin baitziren etxeak egin.

Aurreproiektua aurkeztu dute eta orain Foru Aldundiak proiektua onartzea falta da. Onarpenarekin 4 etxebizitzak egiten hasiko dira. Domingo Iturben ere urrian emango zaie hasiera 12 etxebizitza egiteko lanei.



San Migelen biajeak

Angiozarko jaiak San Migelen zeruratzearekin bukatzen dira, plazatik santuaren irudiak poliki poliki laino artean ezkutatzen denean. Beste herri batzuetan ere famatuak dira antzerako ekintzak, baina jaietako hasiera emateko: Zeledonon jeitxiera, Bergarako Bitorianatxo dira horietako batzuk.

Gure kasuan San Migel ez da jaien hasieran inondik jaisten, bukaeran zeruratu egiten da, aidez bidaia luze edo motzagoa egin ondoren, itzultzen da berriz Angiozarrera.

Irailaren 29an, San Migel eguneko iluntzean, herriko gaztetxoek askatzen dute San Migel, pusika haundi batzuk zerurantz eramaten duetalarik. San Migel soineko berdez eta kapa gorri haundiz agertzen da, ezpata eskuan eta paparretik zintzilik topatzen duenarentzat mezua. Mezuak hamabost mila peseta eskaintzen ditu San Migel etxera itzultzen duenarentzat eta, Angiozarrera etorri eskero jatetxe baten bazkaltzeko aukera ere izango dute bi lagunek.

San Migelen biajeak ondoko hauek izan dira: 1991 Faltzezen (Nafarroa) azaldu zen; 1992an galdu egin zen; 1993an Irungo Aia harkaitzen inguruan azaldu zen, ia

Lapurdiko muga pasatuta; 1994an Angiozarren bertan, Azkunetan lurreratu zen; 1995ean Munitibarreren (Bizkaia); 1996an galdu egin zen eta, azkenik, 1997koa Leongo Alciles herriko lurretan azaldu zen, orain arteko biajerik luzeena ginez.

Azken biaje hau luzeena izateaz gain Angiozarrera itzultzea ere nahiko gertaera polita izan da. Mariano González jaunak aurkitu zuen iazko urriaren 1ean Alcilesko mendietan arbola batetik zintzilik, bere kartan dioskunez, eta harritura gelditu ei ziran San Migelen tamainua ikusita paraje haietan. Alciles herria gaur egun Riañoko ur presaren azpian dago.

Urte bete lusez eduki bere etxean gordeta, loterian suertea ematen ziola eta. Izan ere karta luze eta atseginaz gain loteria dezimoa ere bidali digu irailaren 26rako eta,

gure harridurarako 15.000 pesetako saria eduki. Azkenik Euskal Herriarentzat bakea opa digu bere kartan eta ahal duenean bisitatuko gaituela esanez agurtzen da.

1991 urtean hasitako ekintza ohitura bihurtu da dagoeneko eta, aurtengo biajea egin ondoren ere berriz gure artera itzuliko dela espero dugu.

Jaietako kronika

Aurtengo San Migel jaiak giro onean moldatu dira, nahiz eta eguraldi aldrebesak jendea atzeratu izan bertara gerturatzeko. Sardina eta saiheski afaria ere elizpean egin beharra egon zen euriaren beldurrez, gero haizea izan bazen ere arazo. Baina Luis Mariren zuzendaritzapean ibili ziren sukaldariak lan bikaina egin zuten elizpean bertan montatutako erretegiatan, eta mila pesetatan bapo

afalduta urten zuen jendeak Nahiko taldearekin dantzan egitera.

Domekan oster, eguerdian, Bergarako Xamatx taldearen dantza emankizuna jende askok jarraitu zuen, baina arratsaldekoa izan zen erakarriena. Zaldi txikiak, zezenak, pailasoak,... luzaro bete zuten gaztetxoentzako gogo.

Jaietan ere gure herriak dituen beste arazo batzuk ere ez dira albora laga eta, horrela, AHTaren aurkako kartel haundiak ere ipinita egon dira, lan horrek dakartzen kalteez jendea jabetu dadin. Presoak Euskal Herriratzearen alde eta adierazpen askatusaneren alde ere ikus zitezkeen kartelok.

AHTaren aurkako kanpaina

Oso ondo doa AHTaren aurkako kanpaina, dagoeneko 5.000 firmara heltzeko gutxi falta delarik. Bitartean banakako alegazioak ere egiten dihardute zuzenean afektatuak direnak eta, beste hilabete batez luzatu arren alegazioak aurkezteko epea, urriaren erdialdera amaitutzat emango da kanpaina eta trazatuaren aldaketa eskatzen duen txosten osoa bidaliko da Jaurleri-tzara.



Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA

Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

Askasibarrek Lemoizko lasterketa irabazi

Miner eta Artetxeri aurea hartu zien azken metroetan

Denboraldi erregular bat zeraman Oskarrek ordurarte eta horren merezia zeukan garaipena lortu zuen azkenean. Lasterketa Lemoizen jokatu zen abuztuaren 14ko egun eguzkitsu batean. Lasterketa amaierara iritsi ziren taldetxoan bera izan zen indartsuena. Gaur egun EUSKADI taldean dugu Artetxe eta profesionaletara igotzeko dagoen Minerren aurretik geratu zen. Lasterketa honek konfidantza eman zion eta hortik aurrerako lasterketetan maila bikaina erakutsi du. Goierriko biran ere parte hartu du (hiru egun). Lehenengo etapan 17. eta bigarrean 19. izan zen, beti ere onenen denbora berean. Azkenengoan, helmugatik 25kmtara erori egin zen, baina laisterketa amaitu ahal izan zuen.



Mundialera joango diren pilotariak Elgetan

Berraondo, Muruamendiaraz eta Iñurrategi bertan izan ziren

Jende dexente bildu zen joan zen bariku arratsaldean Elgetako frontoian. Bi partida ikusteko aukera izan genuen. Lehendabizikoan, Muruamendiaraz eta Iñurrategik, Lizarrako Ruiz eta Elgetako Ubera II.aren kontra jokatu zuten. Xabierrek, hasieran etortzekoa zen Yañez ordezkatu zuen. Ruiz eta Ubera II.ak, markagailuan aurea hartu zuten 10-4, baina 15-11 galtzen ere joan ziren. Azkenean, hogeina berdindu eta ordurarte partida bikaina jokatu zuen Ruizek bi sake ezin izan zituen eraman. Azken emaitza 22-20 bikote gipuzkoarraren

alde. Bigarren partida, Apezetxea goizuetarrak eta Berraondo antzuolarrak jokatu zuten. Bietako bat izango da Mexikoko mundialean eskuz-eskuko partidak jokatu dituen. Hautatzailearentzat aukera paregabea izan zen, Elgetako norgehiagoka, bien sasoia ikusteko. Azkenean, eta ia partida guztia atzetik joan ondoren, Berraondo nagusitu zen 22-21. Bi pilotariak maila ona erakutsi ziguten. Pilota elkarrekoek esan digutenez, jaialdian bildu zen dirua, Eginetako pilota sekziara bideratu zuten.



Xabierrek, hasieran etortzekoa zen Yañez ordezkatu zuen.


HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.

Tel: 768256



Jesús Marí Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN

Zer uste dozu pasauko dala Ozkarbi Elkartiakin?




Juan Luis Abarzela
Bihargiña (44 urte)

Hor dagoz baserritar nagusi pillo bat uste dabenak hori edifiziuoi dagon moduan euren dala, ta hori ez da holan. Horko mobiliarixo dana elkartiana da, ta seguruenik ez badia ados jartzen barruan dagon dana kendu egiño da. Irtenbiderik onena errentan jartzia izango litzake, bai eurentzako ta bai elkartiandako.

Ez dakitt gauza haundirik horren gainorren gaiñian. Bakarrik dakitt, Ozkarbi elkartiai laster kontratua bukatu egiten jakola, ta ez dirala ados jartzen berrizatzeko. Batak bere eskeintzia egiñ dau baiña bestiek ez dabe onartu. Elkartiak jarraitzeko asmua daka, baiña ez dakitt zer pasauko dan.

Exonin Askasibar
Bihargiña (48 urte)



Txaloia Ubeña
Bihargiña (30 urte)

Neri gustauko jatan kontratua berriztia, herrixandako elkartia garrantzitsua dalako. Ni neu elkartekua naiz. Badago herrixan jentia sarri faten dana, ta falta egiten dotzana, baiña badago beste jende bat ez dotzana faltaik egiten.




Begonia Abarzela
Etxekandria (49 urte)

Neri pentsatzen jata konponduko dirala kontratua luzatu edo beste zehozelan. Ez balitzakez konponduko gustauko jatan behintzat beste leku baten jarraitzia, elkartia desegin barik.

Ez dakitt oiñ momentuan zelan dagon hori gaiñoi. Badakitt kontratua bukatzekotan dagola, ta pentsatzen dot konponduko dirala berriz luzatzeko.

Eloi Jrazabal
Bihargiña (45 urte)



Neri penia emongo loztake Ozkarbixa desegittia, baiña badagoz hirulau bestekaldian, sindikatuan partetik, ez dabena nahi ez kontratua berrizteik ta ezta edifiziuia saltzeik be, ezergaittik bez. Ez dot uste irtenbideik dagonik.

Arantxa Arrieta
Bihargiña (53 urte)



ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETATA ETA FIJAZIO SISTEMAK
Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

EROSLE
M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190

Kartetan jokatzeko giro egokia
Tel: 768093
Patxi Taberna

Tel: 76 81 31
M^a Jesus Arrazola
VIVO
Janari Jendakari

M^a ESTHER
Tel: 76 81 67

Aries: Aurreko asteazkenian bahekan ligatzeko aukeria...baiña ez haiz kon-turatu be egiñ. Hi Aries, nun dakak/dakan burua?
.....

Taurus: Diru larregi gastau dok/don egunotan. Oñ zeñi eskatu? Neri ez, ez jakat txikitaik be ta...
.....

Geminis: Loterixia jokatu bihako dok/don baiña ez tokau bihar jatzula-ko, loterixa saltzalliak ligatzeko aukeria eukiko dozulako.
.....

Cancer: Plan askotxo dittuk/dittun buruan eukitzeko baiña lasai, oñ edo beranduau batenbatek hik nahi duan/donan moduan urtengo dosta.
.....

Leo: Baietz ba, ederra zala benetan. Baiña lantzian behin haginak garbitxu, demaseko usaiña dakak/dakan.
.....

Virgo: Parrandak egittiai lagatzeko asmuakin? Bai zera! Orduan ni Aitta Santu egiteko bidian.
.....

Libra: Telebista sarregi ikusten dok/don. Zegaittik usten dok/don hori mozolo aurpegixoi dakazula?
.....

Escorpio: Lagunek esaten juek/jone txapa bat haixela. Horrek dittuk lagunak! Hire txapak entzuteko kapaz ez boittuk/boittun, ez dittuk/dittun lagunak.
.....

Sagitarius: Astelehena egun politta izango dok/don; martitzena be bai, eguastena bardin ta... Ai ene! ze ederra den bizitzia!!!
.....

Capricornius: Lasaittu egin bihako haiz piskat. Iñok ez dua/dona esan altuegi egitten dozula berba? Zeoze pentsatzen hasteko ordua dok/don.
.....

Acuarius: Hire onetik etarako hauen arazon bat agertuko jata/jatan. Baiña trankill, danak jakak/jakan konponbidia.
.....

Piscis: Enterau naiz Udazken jaixan basua soltatzeka ibili zinala kupeletik-kupelera. Lotsabakuoi! Hi, zurrutero galanta egiñda hago Piscis!
.....

Malen Lezama Bihargiña (28 urte)

Noiztik zabiz Ostatu jatetxian lanian? Lau urte egiñ bihar dittut. Barran egotia ala maixak zerbitzia nahixau dozu? Barran egotia. Zenbat ordu egitten dozuz tabernan lanian? Bost ordu inguru. Zenbat gus-tauko jatzun egittia? Hiru. Aurten oporretan kan-pora juan zara? Bai. Nora? Errioxara. Zeñ izan da udako kantua? Ricky Martiñena. Zenbat denbora mutillakin bizitzen? Urte t'erdi. Azkenengo ira-urri dozun liburua? "La fuerza del deseo". Ta erosi dozun azkenengo dis-kua? Manolo Garciana. Noiz egiñ dozu azkekengo aldiz negar? Oñ dala bi aste, pelikula bate-kin. Gogoratzen dozun egun berezi bat? Abuztuan hamaseixa, nere eguna. Estudiantian bizimodua ala lan-gilliana nahixau?



Estudiantiana. Domeka eguerdi baten zer jango ziñuke gustora? Okelia. Lanetik urtendakuan zer gustatzen jatzu egittia? Beste taberna batera fan ta kafe bat hartzia. Txori-zoro ala Jam nahixau? Txori-zoro. Aurtengo negurako erropak erosi dozuz? Ez. Udan zeren faltia igarri dozu? Freskura pixkatena. Zek bil-durtzen zaittu? Solteruen despedi-dek. Ze peliku-latako pro-tagonistia gustauko jatzun izatia? "Leyendas de pasion"ekua. Egunian zenbat aldiz begiratzen zara espi-lluan? Behin, goizian. Liburutegixan egon ziñan sasoian zer ikasi ziñuan? Marrazkixak egi-tten.

TIOROROSKOPUA

Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA JATETXEA

tel: 768284

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behetxea Baserria. Tel: 860156

Goibekokale 38.zk

Oskarbi, hiru hamarkada herriaren zerbitzura

1967.ean sortutako elkarte honen etorkizuna kilika larrian dago gaur egun

Oskarbi elkartearen erreferentziak izan dugu elgetarrok azken hogeita hamar urteotan. Nola-bait, herritar danok izan gara elkarte honen konplize, hala nola, dantza taldearen bitartez, mendi irteeratan parte hartuz, kontzertuetara joanaz, kirol ezberdinetan parte hartuz edo, besterik ez bada ere, afaltzera joanaz. Egun, arazo ezberdinak direla medio Oskarbiaren etorkizuna ez dago oso argi.

Elgetarrok Oskarbi izenez ezagutzen badugu ere, berez, Oskarbi da. Izena ortz eta garbi hitzen elkartzetik hartu dago. Elkarte honen sortzaileen ustetan, garai hartan, herriko ekintza guztiak kanpotik edo gizon batek edo bik erabakitzen zituzten. Gauzak horrela, herriko erabakiak herritarrek hartu behar zutela usteta, laino artetik eguzkia atera nahian bezala, ortz-garbia ikusteko asmoa zuten antolakuntzako ekintzek. Horrela jarri zitzaion Oskarbi izena, gaur egun Oskarbi bezala ezagutzen duguna.

Elkartearen sorrera



Oskarbi elkarteak 31 urte bete zituen Otsailaren 2an.

Oskarbiaren sorrera dantza taldearekin zuzenki lotua dago. 1962. urtean 6 apaizgai etorri ziren Elgetara, Joaquin Gasteziren bidez, zenbait euskal dantza ikasita. Garai hartan haur txikiekin danborrada bat gertatu zuten, eta haur eta gazteekin dantza taldea sortu zuten. Ekintza hauek izan ziren Oskarbiaren lehen pausok.

Dantza taldearekin hasi zirenez, dantzarako izenpetu zen koadrila izan zen sortzailea.

Aipatu beharra dago garai hartan Fran-

koren boterepean aurkitzen zela Euskal Herria eta horrek ere bere eragina izan zuen.

1966.ean II. Umeen Euskal Jaia antolatu zuen Oskarbi, baina bezperako iluntzean agintariek dena galeraziko zutela enteratu ziren. Hori aditzean orduko idazkariarengana joan ziren zer gertatzen zen jakiteko asmoz, eta harek, dena debekatua zegoela eman zien aditzera. Debekuaren arrazoi bakarra taldearen "nortasun eza" izan zen.

Hurrengo goize-

an, Kapitain eta Guardia Zibilez bete zen Elgeta. Ekintza batzuk egiten utzi zuten hala ere. Kantaldiko abestien letrak itzulita eman, bertsolariek jorratu beharreko gaiak zeintzu izango ziren adierazi... denetik egiten behar izan zuten. Gertatutakoa ikusita, "nortasuna" izatea erabaki zen. Horrela, 1967ko Otsailaren 2an Oskarbi taldea osatu zen.


Oskarbi izena adierazteko, Jesus Okina bergararrak, egurrean tallaz, Intxorta mendia alde batean eta bestean

F . O . R

Kalitate kontrola

Piezei azken ukituak

Tel: 76 80 38



salbador
19
behea

IBAIBA- RRIAGA

GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA

E HARATEGIA A S T

San Roke 6
tel: 768168.

Udaletxea eta San Roke kalea, plazako orman "kaskurrio" zena daudela egin zuen (gaur egun jantokian ikus daiteke). Bertan Oskarbi "s"z agertzen da, baina lehenengo estatutoetan eta beste, "z"taz idatzi zen. Erremediorik izan ez duen errua.

Ekintza ugari

Garai hartan, Oskarbi izan zuen garrantziaz eta indarraz jabetzeko antolatzen zituzten ekintzei begiratu beharra besterik ez dago.

Urtean zehar bi edo hiru kantaldi antolatzen zituzten. Kantaldi horietan denontzat aski ezagunak diren kantariak izaten ziren, hala nola, Pantxoa eta Peio, Mikel Laboa, Benito Lertxundi, Txomin Artola, Gontzal Mendibil eta beste hainbat izan ziren Elgetan. Kontzertuak frontoian



Erru baten ondorioz hasieran Oskarbi zena Oskarbi moduan ezagutzen dugu gaur.


izaten ziren eta frontoia kokoteraino betetzen zen gainera.

Asentzioko potzu gainean kontzertu bat egiteko saiakera ere izan zen, baltsa eta guzti, baina eguraldiak lagundu ez zuenez azkenean pilotale-

kuan egin behar izan zen.

Hauek ez dira ordea Oskarbi antolatzen zituen ekintza bakarrik. Kontzertuez gain, teatroak eta kantaldiak bazkideak partaide zirelarik, haurren dantzari egunak, tanborradak,

Gabonetako karrozak eta hainbat kirol aktibitate ere antolatu izan ditu Oskarbi urte askoan zehar. Esan bezala, garai hartan -gaur egun asko gutxitu da- izan zuen garrantziaren islada.



J. I. Erostarbe (Oskarbiko presidentea)

-Zein puntutan aurkitzen dira negoziaketak?

Oskarbiren aldetik, 26.500.000 pta-gatik eraikuntza erostea edo hileko 100.000 pta-tako alokairua proposatu

zen. Proposamen hau ez da onartua izan. Momentu honetan negoziaketak gelditu daude eta urriak 7an egingo dugun Bilera Orokorraren ondoren gure etorkizuna planteatu beharko dugu.

- Ba al dago irtenbiderik?

Gure proposamen ekonomikoa tekniko desberdinek kontrastatu dago eta gure eritziz merkatuan eraikuntzak duen balioa baino gorago dago.

Beste aldetik, beste kondizio ekonomiko batzuei aurre egitea korapilotsua da. Gure lehenengo helburua gazteak elkartean sartzeko prozesua erreztea eta sozio berriei zabalik egotea izaten jarraitzen du. Horregatik ezin dugu planteiatu kuoten igoera garrantzitsu bat.

-Zer eskatzen dizuete baserritarrek?

Erosketa 34.500.000 pta-tan baloratu dute eta elkarrizketa aspektu ekonomikoan zentratzen dute bakarrik.

Lamentablea iruditzen zaigu elkarte honek dituen aspektu desberdinak kontutan ez hartzea (sartze erreza, 16 urte betetzean giltza, sexu berdintasuna, jubilatuek giltza eduki ahal izatea), eta irabazle garrantzitsuenetarikoak Kooperatibako sozio jubilatuek direla ere ez dute kontuan hartu.

-Baserritarrekin akordio batera iritxi ezean zer gertatuko da elkartearekin?

Gure asmoa gure tresna eta trasteak kontratu bukatzean erretiratzea da eta eraikuntza inongo polemika gabe ustea.

Elkarte honek dituen bereizgarriek beste lokal baterako aldaketa zailtzen dute (gutxi gora behera 240 sozio+ 80 gazte+ 120 jubilatuek), baina gai hau hurrengo bileratik aurrera aztertu beharko dugu.

Nere iritzi pertsonala 35 urte baino gehiagoko historia bukatuzat ematea da, elkarte desegin eta aro berri bati hasiera ematea, errealitate berrira moldatuz.

Lehiaketa


Oporren bueltan lehiaketiak be ez dau gura kale egitia. Honezkero iñor gutxi gogoratuko da ze demondre zan aurrekuan eskatu giñuana baiña ze demondre, oporretara fateko autobusa zan ta oiñ bueltan be etorri da. Miren Ibarluzea be autobusian fan ete zan? ez dakigu. Dakiguna da, hori autobusoi makiñatxo bat bidar ikusi geinkela Ozkarbi aurreko gelditzeko lekuan ta Mirenek nunbaitt ikusitxa dakala.

Oingo alian, ta oporren bueltia zeozela gozatzeko, birentzako afarixa zozketatuko dogu ta baitta kamiseta bat be. Bi sarixok batentzako izango dira. Goibekokaleko kamisetia ta afarixok zuretzako nahi

izanez gero haxe da asmau biharrekua.

Zer da hau?

Pare bat pistatxo emotera goiaz ez da erreza ta. Batetik, esan, Elgetan etarata dagola erretratua; bestetik, Euskaltzaindiakuak esaten daben moduan, Done Jakue bidia egitten ziharduala. Errezaua da oiñ ezta? Bialdu zuen erantzunak Goibekokalera, Salbador kalia 2 Kultur Etxia.



Jgorren Komikia



Goibekokale 38.zk

Sagardoa edaten eman diogu agurra udari

Idea, itxura eta adin ezberdinetako 23 taldek parte hartu dute patatazko tortila lehiaketan

Udazkena heldu orduko aurten ere sagardoa edan eta patatazko tortila jateko aukera izan dugu Gaztetxeak antolatutako jaietan.

Arratsaldeko 17:00ak orduko plaza prest zegoen Udazken jaiari hasiera emateko. Elgetako trikitalarien lehenengo piezekin batera, patata tortila lehiaketan izena emandako elkarte, kuadrila...talde ezberdinak, norbere bere lekua prestatzen. Kanpandorrean seiak entzun

orduko, patatak moztu, arraultzak irabiatu... Zazpietarako 23 tortilak gertatuta zeuden, momentu horretan epaileen txanda heldu zen. Bitartean sagardo freskoa edateko kupe-lak zeuden plazan eta tabernatan. Tortila guztiak probatu eta ikusi ondoren lehenengo saria eman zioten Tabernari Elkarteari. Originalenaren saria Txapela futbito taldeak eskuratu zuen, tortilari gainean jarritako arraultza frigituak zerikusirik izango zuen horretan. Azkenak ere izan zuen saria, Kontxi Arrandeagikoek. Hurrengo urtean tortila egiteko sartaina irabazi zuten.

Sariak banatu ondoren tortila pintxoak banatu ziren, txartelak erosten azkarrenak bakarrik izan zuten hauek jateko aukera, denontzat ez zegoen eta.

Gaueko 22:30ak inguruan, Ermuako Txindurri txistu eta dantza taldekoen eskutik euskal dan-



Emakumezkoak beste gizon tortilak egiten.

tzak ikusteko aukera izan genuen aspaldiko partez herriko plazan.

ziren.

Beranduago, Gaztetxera gerturatu zirenek, ARAKAJUN eta ENE BADA taldeen kontzertuarekin jaiari bukaera eman zitzaion. Hurrengo egunean sagardo gehiegi edateak ekarritako bixamona zeukatenak ugari

Oraindik ez da agertu Saizar sagardotegira 4 lagunendako afaria irabazi duen pertsona. Errifako zenbakia 1385 da eta ordezkoa 0169.



Tabernarien elkarteak irabazi du aurten tortilla lehiaketa.

23 tortila egile plazan
350 pintxo jan ziren
500 litro sagardo edateko
400 edalontzi saldu ziren
300 pertsona inguru
erakusketa ikusten



IRAMA

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262
tel: 789057-768025

Instalazioak eta mantentze lanak

ANA LIBURUDENDA



Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078




Ermuako dantza taldeak jendetza handia batu zuen.



Zazpietarako 23 tortilak gertatuta zeuden.

1	Tabernari elkarte	24
2	Gu ga gu	17
3	Aitor eta Alain	15
4	Udaletxeko langileak	15
5	90.210	14
6	Elgetako HB	13
7	Elgetako Rock taldea	13
8	Estampaciones Elgeta	12
9	Gauerdiko txoriak	12
10	Argiñanoren lagunak	12
11	Luis Atorrasagasti	12
12	Txindurri dantza taldea	11
13	Intxorta elkarte	11
14	Elgetako EAJ	11
15	Bolinagatarrak	10
16	Txirindulari elkarte	10
17	Elgetako trikitilarixak	9
18	Elgetako Gaztetxia	9
19	Gure Borda	9
20	Gaur goizekuak	8
21	Txapela F.T.	7
22	AEK Barnetegia	6
23	Kontxi arrandegia	6



Ohitura bihurtu da udazkenaren etorrera sagardoa edanaz hastea.



Lau epaile hogeita hiru tortilarentzat. Izan da gauean goragalea izan zuenik ere.

oh.: puntu berdinak dituztenen kasuetan, dastamena izan da desenpatea egin duena.



Mailota etxean utzi eta amantal garbi-garbiekin egin zuten tortila.

Iragarri zaitez.

Tel: 943.78.90.85

Faxa: 943.789043

Herri batzarra

Egoera politikoa
Lizarrako adierazpena
ETAren su-etena

E. H.

Osteguna 1 gaueko 8:30etan Udaletxean

ERREKALDIA

Ermita: San Kristobal

Jaia: Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauzez izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoen alde (Hermandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruureneko meza ere bertan ospatzen da.

Baserriak eta etxeak:

- Loidi Etxebarri
- Loidi
- Loidi Bolu
- Loidi Bolu berria
- Askasibar
- Askasibar Bolu
- Askasibar Bolu berria
- Belastegirena
- Meltxorrena (Unamuno Berri)

- Aldai Etxebarri
- Aldai Gaiñekua
- Aldai Aurrekua
- Aitzol
- Gaztelu
- Aldai Azpikua
- San Kristobal
- Elkone (Elkoro Berezibar)
- Bitzibar (Berezibar Erdikua)
- Bitzibar Barrena (Berezibar

- Barrena)
- Edui (Eduegi)
- Amuskibar
- Amuskibar Bolu
- Gaittao Aldekua (Garitano A.)
- Gaittao Gainekua (Garitano G.)
- Gaittao Erdikua (Garitano Markezku)
- Gaittao Barrena (Garitano B.)
- Osingain

Loidi

Etxe zabala da Loidi, bailaran teilatu zabalera haundiena duenatarikoa. Etxea jasota dagoen lekutik datorkio izena seguruenik: errekatxo baten alboan eta Angiozar errekatik gertu, leku lohitsu, lokatsatsua, izango zen nonbait eta lekutik hartu izena.

Gainera, lekuizena ez da mugatu etxe honetara, eremu zabalago batera hedatu da inguruko beste hiru etxeri ere bere izena emanez: Loidi Bolu (etxeko errota garai baten, aurreko Goibekokalen aipatu genuena), Loiditxo (desagertuta, baina oraindik lau kantoiak ederto antzematen direnak ditu Angiozarko kaminotik begiratuz) eta Loidi Etxebarri.

Loidi abizenak etxean bertan pasa den hamarkadararte irau du,



mendeetako historiaren jarraipenari bukaera emanez. Askok ez jakin arren Loidi Errekaldean armarrria daukan bi etxetariko bat dugu (bestea Eduegi da). Loidiko armarrria oso arkaikoa da, gahiegi landu gabekoa, baina bere funtzioa dotoreenak

bezain ondo betetzen duena. Hiru laixa ditu irudikatuta eta ekialdera jotzen duen horman, ateen tartean dago.

Etxearen egitura bera ere garai baten bestelakoa izan behar zuen, goiko sabaitik duen bur-

dinazko atakak adierazten duenez. Behar bada defentsarako egitura horretatik ondoriozta daiteena etxea alde horretan (hegoaldean, mendi alde- ra) gaur baino estuagoa zela da, geroago gehitu zizkiotelarik gaur egun kortak dauden atalak.

Bestela etxeak gordetzen ditu jauregi ikutuak: leihoetako jarlekuak, harlanduak,... bailarako maiorazgorik garrantzitsuenetarikoa izandakoa da eta.

Hasieran esan dugu lekutik datorkiola izena etxeari, baina lekuak etxearen antolaketaz guztia ere baldintzatzen du: leiho guztiak iparraldera begira daude besterik ezinean, ezaugarri hau erreka eskumakaldean dauden etxe guztiei gertatzen zaielarik, eguerdiko eguzkiak inoiz ere ez duelarik jotzen etxearen alde honetan.

Eladio Loidi izan zen etxearen izena bere abizenen eraman zuen azkena, geroztik bere arreba den Agustina Uribe eta bere familia bizi dira bertan. Azken urte hauetan zeharo berriztuta gelditu da etxea: bi bizitza bereiztu dituzte, ate berriak atera, fatxada errebokatu eta zuritu, erreteila egin,... Loidi etxearen aro berri baten adierazgarri seguruenik.

Loiditxo

Loidi eta Loidi-Etxebarri etxeen bitarteko tontor ganean dago, zelaian ikus daiteken arbolarte baten. Bere hormen beheko alde gelditzen da, kantoietan zerbait gehiago badu ere. Mende honen hasieran hustuta zegoen iadanik, gerra zibilerate teilatu atalaren bat zutik eduki arren orduan bota ei zituzten



eta.

Etxe honetako biztanleak ere Loidi etxe-koekin ahaide ziran, abizen berekoak, eta gaur egungo Loidi Etxebarri-

tzueta sabaiko atea litzatekeena hemen etxe-ko sarrera bihurtua, etxearen egiturak eta dagoen lekuak besterik ez bait dute posible egiten.

etxeari, inguruko besteei ez bezala, azken aldian bota diren pinudiek asko hobetu dutelarik bertako bizitza baldintzak.

Loidi abizena dute gaur egun ere etxean, familia azken berrehun urtetan Loiditxon, Loidin eta azkenik Loidi Etxebarrin bizi izan direlarik. Orain bizi diren belaunaldia da familian etxe honetan jaio den lehena.

Loidi Etxebarrira bizitzera etortzeko aurrez bertakoak ondorengorik ez eta haiek jasotze aldera egindako tratutik dator, mende honen lehen laurdenean.

Gaur egun Lorenzo Loidi eta familia bizi dira, bertakoa delarik baita Angel Loidi Arantzazu Loidi bertsolariaren aita.

Loidiko armarría oso arkaikoa da, gahiegi landu gabekoa, baina bere funtzioa dotoreenak bezain ondo betetzen duena.

koen arbasoak. Hemen-dik Loidira alde egin zuten hango errentero izateko.

Loidi Etxebarri

Beste etxeen orientazio berdinarekin, honek ostera hegoaldera du ate nagusia, beste etxe ba-

Etxea aldapan egina dago eta kontra-fuertez eutzita, beste hainbat lekutan bezala lurra mugitu egiten bait da.

Bailaratxo baten bukaeran egoteak eguki ordu dexente edukitzeko aurkera ematebn dio

Loiditxoko biztanleak ere Loidi etxe-koekin ahaide ziran, abizen berekoak, eta gaur egungo Loidi Etxebarríkoen arbasoak.



Txalo artian sartu dittue kartzelara. Juezek erabaki zeben hori merezi zebela, baiña, hala ta be, txalo artian barrura. Eurak ez ei dira txarrak, egiñddako danak gure onerako egiñ ei zittuen, batzuk sekuestrau ta beste batzuk hil, baiña danak geure onerako.

Ta dana ez da hori. Españako periodista danak hor dare, zeregin hobeik barik, kartzela barruan zelan pasiatzen daben erakusten, gaur egunian sasoiko egotia oso da inportantia. Ta hor

erakusten doskue afaltzeko orduan gure gizonak karzelan, hor patixuan gora ta behera, ez pentsau, gaiñera pasiau besteik egitten ez dabenik, aiñtxitxika batzuk be egitten dittue, saltotxuak be bai, gerrixa biguntzeko beste horrek be bai ta tripatxua ez urtetzekuak be egitten dittue.

Baiña beste berri batzuk be badia: Españan hori bizkaitar ahoberuoi futbolisten aukeratzaille izatetik kendu dabela, ta periodista gehixenak pozik, Ameriketan, miazkada batzuk gora-behera presidentiak narrutan, narrutan ez zebela egiñ, Errusian krisi gogorra dala ta haren kulpaz

Txalo artian

mundu osoko diru boltsak zoratuta daoze.

Ta bittartian, Españan, bertan, batzuk gosiak egongo dira, Ame-

jende dexente. Baiña holako barrixak ez dira barri entzungarrixak ta ez aittatzia hobeto.

Ta gaiñera horrek

***Eurak ez ei dira txarrak,
egiñddako danak gure onerako
egiñ ei zittuen, batzuk
sekuestrau ta beste batzuk hil,
baiña danak geure onerako.***

riketako kapitaletako kanpoko aldetan mixerixa latza biziko dabe batzuk, ta Errusian, negu gorrixá gaiñian dabela, majo izorrauta egongo da

periodistok gure dirutik bizi dira!

Jabier Arantzeta

Gaur egunian sasoiko egotia oso da inportantia. Ta hor erakusten doskue afaltzeko orduan gure gizonak karzelan, hor patixuan gora ta behera.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta

Tel: 768075-6 768225

Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

**EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA**

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273




**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

Eusko legebiltzarrerako hauteskundeak 1998


DENBORA BERRIAK ERANTZUK BERRIAK

Eman botoa EAJ /PNV ri



Kafe hauek denak...
FREXKOAK
XIGORTU BERRIAK
XUABEAK.....dira

Egunero herriz-herriz banatzen diren kafeak. Zeuk aukeratu.



BAQUÉ KAFEAK
XUABEA

Konpainaren 80. urteak

EH

Euskal Herritarrok

